



La Encartada Fabrika-Museoa toki berezia da. Balmasedako hirigunetik 3 km-ra dago, Villasana de Menara doan errepidean. Ehungintza-fabrika zaharra (1892-1992) da eta gaur egun museo bihurtu dute. Toki honetan duela mende bat baino gehiago fabrika modernoa eraiki zen eta artilea produktu desberdin bihurtzen ziharduen: txapelak, biserak, lepo-berogarriak, eskularruak, tapakiak. Ia makineria guztia atzerritik ekarri zen, gehiena Ingalaterratik. Multzo guztia zuzenean energia hidraulikoari esker mugitzen zen. Fabrikaren ondoan, enpresaburuek langileentzako etxeak eraiki zituzten, baita kapera-eskola bat ere. Lanegunetan langileen seme-alabek klaseak izaten zituzten bertan. Igande eta jaiegunetan guztiak meza entzutera joaten ziren. Fabrika ehun urte geroago itxi zen. Orain, museo modura, halako fabrika motak nolakoak ziren eta nola lan egiten zuten zuzenean ikus dezakegu.

Irisgarritasuna bermatzen duten bitarteko teknikoez gain (igogailuak, komun egokituak, arrapaladak...), La Encartada Fabrika-Museoak behar bereziak dituzten talde eta jende desberdinarentzako moldatutako bisitak ditu. Eguneko zentro eta egoitzetarako bisitak gutxi gorabehera 70/85 minutu irauten ditu. Bisita gidatuen plan "dinamikoagoa" proposatzen da. Hala, giroak aldatu eta azalpenak txandakatzen dira. Lehenik eta behin, jabeek fabrikari izan zuten etxera (XX. mendearen hasieran girotua) sartuko gara; gero, berriz beheko solairua hartuko dugu, bideo bat ikusteko. Langile ohien testigantzak egongo dira. Azkenik, taldean bisita gidatu laburra egingo dugu fabrikazio-plantan zehar.

Sarrera murriztuak pertsonako 3,50 euro balio ditu eta talde bereziari dagozkion laguntzaile/monitoreak doan sartuko dira. Konplexuaren ondoan aparkaleku zabala izan arren, erreserba eta eskaera egin ondoren, talde berezien edo mugikortasun zailtasunak dituzten taldeen autobusak barrutiaren barrura sartu ahal izango dira eta sarreran bertan geldituko dira.